


16. atala
GARAI LATZAK

Aritz triste xamar zebilen. Iurreta Durangoren menpe nola gelditu zen kontatu zion Jonek. Handiak beti txikian zapaltzen... Iurretako plazara heldu ziren berriz euren paseoan.

- Laster lortu ahal zuten iurretarek beren herri izaera berreskuratzea Jone?
- Ez horren laster Aritz.
- Zer gertatu zen ba gero?
- Primo de Riveraren diktadura bukatu eta Espainian errepublika ezarri zenean iurretarrak saiatu ziren berriz herri bihurtzen baina 1936ko gerrak asmo haiek zapuztu zituen.
- Berriz ere gerran? – Izutu zen Aritz
- Eta zer nolako gerra Aritz!
- Iurretan ere eragin zuen?
- Oso Garai latzak izan ziren Aritz. 1937ko martxoaren 31n Durango bonbardatu zuten Francoren aldekoek. Jende mordoá hil zuten eta tartean iurretar asko ere bai.
- Nola da posible hainbeste gerra izatea? – Negarrez ari zen Aritz.
- Arrazoi duzu Aritz... - Jonek ia ez zuen ha guztia azaltzeko indarrik – Iurretako plazako kanpandorre ingurutik egin zieten aurre hemen tropa frankistei eta ondo begiratzuz gero bala guzti haiek eragindako kalteak ikusiko dituzu kanpandorrean edo udaletxearen aurrealdean.
- Hara! Egia da Jone! – Esan zuen mutikoak kanpandorrera begira.
- Bai Aritz, kanpaia bera ere zulututa dago. Baina tamalez frankistek irabazi zuten eta 1937ko apirilaren 28an Iurreta

ARIKETA:

- Hemen dugu Iurretako kanpandorreko kanpaia, baina marraztuko al duzu zuk kanpandorra bera?



beraien esku erori zen 40 urte iraungo zuen diktadura bat inposatuta.

- Berriz ere diktadura... Berriz ere handiak txikiak zapaltzen...
- Hala da Aritz. Pentsa, gure hizkuntza bera ere, hain antzinatek gure artean duguna, debekatu egin zuten eta mundu guztia gazteleraz hitz egitera behartu.
- Baina, baina... - Eskuak burura eramán zituen mutikoak.– eta zergatik ez bi hizkuntzak ikasi? Hizkuntza ezberdinek kolore gehiago ematen diote munduari!